

NOREKIN-NOREN(A)- NORENTZAT

	singularra	plurala	mugagabea
NOREKIN	-arekin	-ekin	-(r)ekin
NOREN(A)(K)	-aren(a)(k)	-en(a)(k)	-(r)en(a)(k)
NORENTZAT	-arentzat	-entzat	-(r)entzat

Atzo mendira joan nintzen nire aitarekin (norekin- singularra)

Atzo mendira joan nintzen nire lagunekin (norekin plurala)

Atzo mendira joan nintzen Beñatekin (norekin- mugagabea)

Liburu hori ikaslearena da (norena- singularra)

Liburu hori ikasleena da (norena- plurala)

Liburu hori ikasle batena da (norena- mugagabea)

Amak tortilla prestatu du alabarentzat (norentzat- singularra)

Amak tortilla prestatu du alabentzat (norentzat- plurala)

Amak tortilla prestatu du Koldorentzat eta Jonentzat (norentzat mugagabea)

NORENTZAT: PARENTESI ARTEKO HITZEKIN ERANTZUN EZAZU

- 1.- Norentzat ekarri duzu liburua? (Irakaslea)
- 2.- Norentzat erosi duzue oparia? (umeak)
- 3.- Norentzat prestatu duzu bazkaria? (ama)
- 4.- Norentzat erosi dute pastel hau? (aitona)
- 5.- Norentzat idatzi duzue gutuna? (lagunak)
- 6.- Norentzat da jostailu hau? (haurra)
- 7.- Norentzat ekarri dituzte loreak? (Aitzol)
- 8.- Norentzat egin duzu marrazkia? (arriba)
- 9.- Norentzat gordeko dugu eserlekua? (gonbidatuak)
- 10.- Norentzat eraman duzue bazkaria? (ume asko)

NOREKIN: PARENTESI ARTEKO HITZEKIN ERANTZUN EZAZU

- 1.- Norekin joango da Jon kontzertura? (lagunak)
- 2.- Norekin etorri zara eskolara gaur? (ahizpa)

- 3.- Norekin bizi da amona? (aitona)
- 4.- Norekin jolastu dute hurrek parkean? (ikasleak)
- 5.- Norekin hitz egin duzu telefonoz? (irakasle asko)
- 6.- Norekin afalduko duzu gaur gauean? (lagun mina)
- 7.- Norekin bidaiatu dute asteburuan? (familia)
- 8.- Norekin entrenatzen du taldeak? (entrenatzaileak)
- 9.- Norekin ikasi duzu azterketarako? (klasekide bat)
- 10.- Norekin ospatu duzue urtebetetzea? (senide gutxi)

NOREN(A)(K): PARENTESI ARTEKO HITZEKIN ERANTZUN EZAZU

- 1.- Norena da liburu hau? (ikasle bat)
- 2.- Noren etxea bisitatu duzue asteburuan? (lagunak)
- 3.- Noren marrazkia dago horman? (haurra)
- 4.- Noren autoa hartu duzu gaur? (aita)
- 5.- Noren urtebetetzea ospatuko dugu bihar? (amona)
- 6.- Noren mezua jaso duzu mugikorrean? (irakasle asko)
- 7.- Noren ideiak erabili dituzte proiektuan? (taldea)
- 8.- Noren argazkiak daude album honetan? (senideak)
- 9.- Noren txanda da orain? (ikasleak)
- 10.- Noren aholkua entzun beharko zenuke? (lagun mina)

DENAK NAHASITA: PARENTESI ARTEKO HITZEKIN ERANTZUN EZAZU

- 1.- Norena da motxila hau? (ikaslea)
- 2.- Norentzat prestatu dute jaia? (haurrak)
- 3.- Norekin joango zara zinemara? (lagun asko)
- 4.- Norena da ordenagailu hori? (eskola)
- 5.- Norentzat ekarri du Josuk oparia? (ahizpa)
- 6.- Norekin bizi dira aiton-amonak? (semea)
- 7.- Norena da txakur hau? (auzokideak)
- 8.- Norentzat idatzi du gutuna? (amona)
- 9.- Norekin joan zarete partidura? (entrenatzailea)
- 10.- Norena da ideiarik onena? (ikasleak)